



- Bi urte dira Euskal Kostaldeko Geoparkea eratu zela; oraindik Geoparkea zer den garbi ez duenari, nola azalduko zenioke?

Euskal Kostaldeko Geoparkea hiru udalerriren borondatetik jaio zen, Zumaia, Deba eta Mutriku, eta denborarekin beste bazkide batzuk batu zaizkio. Bazkide hauek osatutako Geogarapen Elkartea kudeatzen du Geoparkea eta gutxinaka arlo eta esparru berriak jorratzen dihardu. Jendeak Geoparkearen alde turistikoa bakarrik ezagutzen du, baina Geoparkea hori baino gehiago da. Kultura, ingurumena, landa garapena, zientzia eta ikerketa funtsezko atalak dira Geoparkearentzat.

Geoparkea bertako garapenerako erreminta bezala erabili behar dugu

Orain arte kostaldea izan da gehien landu duguna, turismoari zein ikerketari dagokionez. Hemendik aurrera, gure helburuetako bat izango da dinamika hauek barnealdera ere eramatea. Geoparkea bertako garapenerako erreminta bezala erabili behar dugu eta, alde horretatik, ikerketa bultzatu behar da.

- Geoparkearen onurak non topa ditzakegu?

Turismoaren bilakaeran, esaterako. Gaur egun turismoak garrantzia izugarria hartu du, datuak ikusi besterik ez dago. Bestelako arloetan ez bezala, turismoari dagozkion datuak hobeak dira urtetik urtera.

Geologiak eta paisaiak eduki ditzaketen erakargarritasunaz gainera, Geoparkeko ondare ukiezina, hala nola, gure kultura, ohiturak edota hizkuntza dira gure produktu turistiko garrantzitsuenak, ezagutu eta ezagutarazi nahi ditugunak, turisten interesa pizten dugun heinean hori guztia mantentzen lagunduko baitigu.

GEOPARKEKO LANDA EREMUA BERPIZTUZ



Geoparkea herriarrei aurkezteko Mutrikun egindako bilera

2012ko ekainean, Euskal Kostaldeko Geoparkea herriarrei aurkezteko bilerak egin ziren herri-zherri (Mutrikun, Zumaian eta Itziarren). Aurkepen hauen helburu nagusia Geoparkea bera zer den argitzea izan zen.

Landa garapena, Geoparkearen helburu

Geoparke gisa izendatu izanak aukera handiak zabaltzen ditu eremu honen garapenerako. Izendapen honek ez du inolako mugarrak edo murrizpenik ezartzen lurraldean egiten diren aktibitateei dagokienez, baizik eta sustatu eta promozionatu egiten du.

Landa garapenari dagokionez, helburu nagusiak Euskal Kostaldeko Geoparkeko landa eremuetako bizi-kalitatea hobetuko duten jarduera eta proiektuen sustapena eta garapena dira; batik bat, dinamizazio ekonomikoa eta ondare natural eta kulturala balioan jartzea helburu duten ekintza jasangarri eta endogenoak bultzatzea.

BAZENEKIEN? Gure nekazarien jarduerak kalitatezko elikagaiak sortzen ditu, ingurumenean modu positiboan eragiten du -klima aldaketaren aurka egiten du eta biodibertsitateari eta paisaiari eusten dio- eta lurraldeari loturik eusten laguntzen du (gure Nekazaritzako Politika Bateratu berriaren helburuak dira aipatutakoak); gainera, kultur ondarea kontserbatzea bermatzen du eta, lurzoruan erabilera bidez, zenbait hondamendi natural gertatzeko arriskuak murritzen ditu: suteak, uholdeak, lur-jauziak, etab.

Eginkizun horiek guziek zuzenean eragiten dute ingurune hurbilaren OREKAN, eta, horrenbestez, gure ONGIZATEAN. Hau da, gure OSASUNEAN. Nekazaritza ARDURATSU, PRESTATU ETA IRAUNKORRAK hainbat eginkizun ditu eta horien elkarreraginen emaitza da osasuna.

DENBORALDI BOROBILA **EUSKAL KOSTALDEKO GEOPARKEARENTZAT**

Euskal Kostaldeko Geoparkearen eskaintza finkatzen eta sendotzen doa urterik urte. 2010eko azaroan lortu genuen Geoparke izendapena eta ordutik areagotuz doa Geoparkearentzat interesatua, arlo zientifikoan zein turistikoa.

Europako zein Munduko Geoparkeen Sarean egoteak nazioarteko proiekzioa eman dio Deba, Mutriku eta Zumaia udalerriek osatzen duten lurraldeari. Hala, aurten mundu mailako zientzialari eta unibertsitate garrantzitsuenak hurbildu dira gurera beraien ikerketak egitera eta, turistei dagokienez, atzerritik datozen bisitariak gero eta gehiago dira Geoparkearentzat.

Atzerriko turisten hazkundea %16koa izan da

2012an Deba, Mutriku eta Zumaia turismo bulegoetara gerturatu diren bisitarien laurdena atzerritarra izan dira; iazko datuekin alderatuz, %16tik gorako hazkundea izan du.

Halaber, interneten ere isla izan du gure lurraldean arreta jartzen duten bisitari kopuruaren gorakadak. Basquetour Turismoaren Euskal Agentziak egindako azken txostenaren arabera, Eusko Jaurlaritzak bere turismo atarian promozionatzen dituen 83 esperientzia TOPetatik, 2012ko uztaila eta iraila bitartean bisita gehien jaso dituztenak "Flyscharen Ibilbidea" eta "Flyschha haurrekin" esperientziak izan dira.

Zalantzarik gabe, Flyscharen Ibilbidearen baitan burutzen diren irteerek dute bisitarien artean arrakasta gehien. Halere, barnealdeko bisitak -Karstaren Ibilbidea- eta kultura eta Esperientzia uztartzen dituzten irteerak erreserbatu dituzten bisitarien kopurua gorantz doa pixkanaka.

ACONDICIONADOS LOS PRIMEROS SENDEROS TEMÁTICOS DEL GEOPARQUE

El panel interpretativo del mirador de Mendataagaine explica la formación del espectacular entorno de Sakoneta.



El Geoparque de la Costa Vasca cuenta ya con los primeros senderos temáticos autoguiados. En el mes de junio el diputado foral de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo, Jon Peli Uriagu, y el Presidente del Geoparque, Iñaki Arrizabalaga, inauguraron la red de senderos para la interpretación de los principales valores geológicos y paisajísticos de la franja costera del Geoparque.

El Geoparque cuenta ya con los primeros senderos temáticos autoguiados

La red cuenta con 5 senderos que suman 20 km. de recorrido. A lo largo del itinerario se han localizado 38 puntos de interés señalizados con

pequeñas placas y se han colocado 5 paneles explicativos en los miradores panorámicos naturales de mayor interés. Las explicaciones de cada punto y de otras muchas cuestiones relacionadas se pueden encontrar en la guía de campo "El biotopo del Flysch", firmada por el Director Científico del Geoparque, Asier Hilario.

EUSKAL KOSTALDEKO GEOPARKEA EUSKADIKO GEODIBERTSITATEAREN II. JARDUNALDIETAN



Ius Interpretazio Zentroek ere izan zuten beraien ekintzen berri emateko aukera. Azkenengo egunean jardunaldiak partaideek geoparkea ezagutzeo aukera izan zuten irteera gidatu baten bidez.

BASQUE COAST GEOPARK NETWORKING



El Geoparque de la Costa Vasca está integrado en la Red Global y Red Europea de Geoparques (EGN GGN). Como miembro de dicha red participa en dos citas anuales a nivel europeo donde se discuten temas propios de los geoparques y presentan los avances realizados.

La última cita fue en Arouca (Portugal), del 18 al 21 de septiembre, donde una representación del Geoparque acudió a la **11th European Geoparks Conference**.

Debido al incremento del número de Geoparques en Europa y de cara a la operatividad del trabajo en red, los geoparques han empezado a organizarse en Foros Estatales. Este verano, concretamente en el mes de julio, los 7 geoparques del estado se reunieron en Deba para acordar una estrategia común en sus actuaciones.

Este mismo mes, Deba también fue escenario del encuentro del proyecto GEOEMPLEO, 13 regiones del estado con importante patrimonio geológico y que pretenden generar sinergias entre las distintas realidades que ayuden a dinamizar los territorios. En este proyecto participa Mendieta (Grupo de Acción Local de Euskadi) junto con el Geoparque de la Costa Vasca. Ambas organizaciones volvieron a representar al Geoparque en la posterior reunión de Geoempleo que se celebró en la comarca de Ribeira Sacra (Galicia).

GEOPARKS CORNER

• **Casa do Forno**, Casa rural puesta en marcha por una pareja de geólogos. Ofrecen sorprendentes Geoproductos elaborados en el antiguo horno comunitario.

"Prove as nossas Trilobites, apetitosos seres que surgiram nos oceanos há 540 milhões de anos; ou as nossas Fatias da Terra, placas tectónicas que se podem saborear sob a forma de aromáticas pizzas caseiras."



EL COMITÉ EJECUTIVO DE LA IUGS VISITA EL GEOPARQUE DE LA COSTA VASCA



Algunos miembros destacados del comité ejecutivo de la IUGS junto con Iñaki Arrizabalaga, Jon Peli Uriguen y Asier Hilario en la playa de Itzurun.

El flysch es un referente mundial de primer nivel

Los miembros del comité se llevaron una muy buena sensación sobre las posibilidades de la ciudad, que en el ámbito geológico muestra como bandera al Geoparque de la Costa Vasca. Los científicos, entre los que destacan Alberto Ricardi, Presidente de la IUGS, Stan Finney, Presidente de la ICS y Wesley Hills, representante de la Unesco para las ciencias de la Tierra, quedaron absolutamente impresionados con la calidad paisajística y geológica de los acantilados de Itzurun.

EUSKAL KOSTALDEKO GEOPARKEAK KONPROMISO ARGIA ERAKUTSI DU GURE ONDAREAREN GEOKONTSERBAZIOAREKIKO

Garapen jasangarria eta geoturismoa sustatzeaz gainera, Euskal Kostaldeko Geoparkearen konpromisoak bat Geokontserbazioa da, azken hilabeteotan egin diren ekintzetan ikus ahal izan den bezala.

Espezie honetako arrastorik handiena da Zumaian aurkitutakoa

Urte hasieran, Itzurungo labarretatik mundu mailan oso arraroa den arrasto fosil bat erreskatatu zen, Saerichnites Abruptus deritzona. Espezie honetako arrastorik handiena da Zumaian aurkitutakoa, orain arte ezagutzen ziren aztarnak baino 4 aldiz handiagoa, eta kontserbazio maila oso ona du. Inguruau zituen pitxaduren zabaltzearen ondorioz, fosila erortzeko zorian zegoen eta bere kontserbazioa bermatzeko erreskate plan bat garatu zen. Fosilaren aurkezpen egunean, Juan Carlos Gutierrez CSIC-eko paleontólogo famatuak hitzaldi aparta eskaini zuen aurkikuntza honen garrantzia nabarmenduz. Zientzialari ospetsuaren esanetan, Euskal Kostaldeko Geoparkeak arrasto fosiletan duen ondare paleontologikoa mundu mailan onenetarikoa da. Egun, Saerichnites Abruptus arrastoa Algorriko Interpretazio etxearen ikusi daiteke.



Jon Peli Uriguen foru diputatu, Juan Carlos Gutierrez CSIC-eko paleontólogo eta Asier Hilario Geoparkeko Zuzendari Zientifikoa arrasto fosila aurkeztu zen egunean.